

Heracio Echeverria Basterraren Argazki Fondoa



Identifikazioa

Erreferentzia-kodea	ES20600AME_FHEB
Izenburua	Heracio Echeverria Basterraren Argazki Fondoa
Data	1915/1936
Deskribapen-maila	01 - Fondoa
1.5. Bolumena	Zenbait formatutako (9x12 eta 13 x18 cm) 240 beirazko plakaz, bi iragazkiz eta antzinako paper fotografikoz osatuta dauden 25 kaxa. Aipagarria da 23 plaka estereoskopikoz osatutako bilduma interesagarri bat.

Testuingurua

Ekoizlea

Heracio Echeverria Basterra

Aipamen biografikoa

Heracio medikua zen; otorrinoa, hain zuzen. Gasteizen jaio zen, 1887ko apirilaren 15ean, eta Eibarren hil zen, 1982an. Haren aita eibartarra eta armagina zen, baina Gasteizera joan zen bizitzera. Ama, Teresa Basterra, 1853ko urriaren 15ean jaio zen, Mirafloresen (Bizkaia). Bost urterekin Eibarrera etorri zen bizitzera, Bilbozar kalera. Bertan, Teresaren gurasoek arma-lantegi bat zuten. Heracio sei urterekin hasi zen ikasten, Gasteizko marianisten eskolan. 10-16 urte zituenean, batxilergoa ikasi zuen Bergarako domingotarrekin. Medikuntzako ikasketak Zaragozako unibertsitatean egin zituen. Osasun-arazo baten ondorioz, Lehen Mundu Gerran Suitzako erietxe batera joan behar izan zuen, eta han Jose Artadi ezagutu zuen, zeinak geroago Soraluzen mediku gisa lan egin baitzuen. Mendizalea zen Heracio, eta Klub Deportiboarekin lotura izan zuen. Hainbat jardueratan Indalecio Ojanguren argazkilaria eta biak elkarrekin aritu ziren. Pilotazale amorratua zen, eta, bere esanetan, Zaragozan ikasten ari zen garaian partiduak jokatzen zituen, eta noizbait Gregorio Zubizarreta "Gregorio Karnizerua" bikotekide izan

zuen pilotan. Bere "Naj" automobilean, bidaia bat egin zuen Frantzian zehar 1917an. Argazkilaritzari dagokionez, amateur mailan ona izan zen. Lehenengo kamera epeka erosi zuen, Donostian. Kamera hauspodun bat zen, eta etxekeo ganbaran errebelatu eta kopiak egiten zituen, kristal gorriko leiho bat zuen gela bat prestatu baitzuen han. Geroago, Suitzan, Goer etxekeo argazki-kamera alemaniar bat eskuratu zuen, Domar lentea eta erreprodukzioetarako luzakina zituena. Ondoren, Servando Juezi saldu zion kamera hori, "minuterok" argazkilarien aitzindari eta Indalecio Ojanguren argazkilari eibartarraren ofizial izandakoari. 1913an, Adelaida Yraolagoitiarekin ezkondu zen, eta lau ume izan zituzten. Zinegotzia izan zen 1923an, Remigio Guimon Egaña alkatearekin, eta 1924an eta 1925ean, Jose Gonzalez Orbearekin.

Artxiboaren historia

Bidebarrietako etxea eraitsi zutenean (hango ganbaran zeukan jarrita argazki-tailerra), materiala haren bilobak jaso zuen. Bilobak material hori Udal Artxiboari entregatu zion, 2001eko azaroaren 28an.

Sartzeko era

Heraclio Echeverriaren bilobak egin zuen dohaintza, eta udalbatzarraren akordio baten bidez onartu zen, 2002ko martxoaren 25ean.

Edukia eta egitura

Irismena eta edukia

Fondoa berez irekia den obra batez dago osatuta. Lehenik eta behin, amateur batek egindako obra bat delako eta, bigarrenik, teknikei nahiz formatuei dagokienez izaera esperimental nabarmena duelako. Oso interesgarria da sortzeko edo antolatzeko ikuspuntutik. Hauek dira gaiak: familiako zenbait kideren erretratuak; paisaia batzuk; Zaragozako Medikuntza Fakultateari buruzko sail txiki bat, han ikasi baitzuen; eta bere bizi-ibilbidearen inguruko erreportajeak.

Antolaketa

Fondoa paketatzeko kartoizko bi kaxetan jaso zen, eta bakoitzaren barnean, beirazko plakaz betetako hainbat kaxa zeuden. Hori dela eta, lehenengo inbentarioa egiteko, banaketa mota hori errespetatu da.

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak

Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak

Egoera fisiko orokorra ona da.

Deskripziorako tresnak

Inbentario topografikoa.

Gehitutako dokumentazioa

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena

Eibarko Udal Artxiboa.

Kopien existentzia eta kokapena

Udal Artxiboan, fondoaren kopia digital bat dago, eta beste bat Echevarria Irigoyen familiaren eskuetan dago.

Lotura duten deskripzio-aleak

Indalecio Ojanguren Arrillaga argazki-fondoa.
Castrillo Ortuoste argazki-fondoa.

Argitalpenen oharra

Deskripzioaren kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón-ek egin du deskripzioa, iturri dokumental zuzenetan eta Eibarko Udal Artxiboan oinarrituta.

Arauk

ISAD(G) arauan partzialki oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoaren arabera.

Deskripzioaren eguna

2013-03-12